



Herri Babesarea

Giza eskubideen defendatzaileen
babeserako euskal udal sarea
Red vasca municipal de protección
a defensores/as de derechos humanos



FORU IBILTARIA

Elkarrekin giza-eskubideen defentsan

AZAROAK 13|14|15|16|17

FORO ITINERANTE

Juntas en defensa de los Derechos Humanos

NOVIEMBRE 13|14|15|16|17

Antolatzaileak Entidades impulsoras Parte-hartzaileak Municipios participantes



Mundubat



Bilako Udala
Ayuntamiento
de Eibar



DURANGO
Udala - Ayuntamiento

Egilea: Fundación Mundubat

Diseinua: Labox Marketing y Comunicación

ERAKUNDE BULTZATZAILEAK

MUNDUBAT

Mundubat gobernuz kanpoko erakundea da, eta erkidegoekin zein herri-erakundeekin lan egiten du, eskubide zein alternatiba sozial eta ekonomikoak aldarrikatzen dituztenean eta partaidetzazko demokrazia sustatzen dutenean. Herritartasunaren ikuspegi kritikoa suspertzen du gure gizartean, eta nazioarteko sare zein aliantzetan oinarritutako lana bultzatzen du. Horretarako elkartasunaren ideia, hain zuzen ere, pertsona guztientzako eskubideen erabilean eta hedapenean oinarrituta dago, genero-berdintasuna kontuan hartuta. Azken 3 hamarkadotan, Mundubatek behar besteko proposamenak garatu ditu, giza eskubideen erakunde defendatzaileei eta erakunde horiek defendatzen dituztenei laguntzeko. Defendatzaileekin egindako lanak baldintza materialak ezarri nahi ditu, hemen entzun dakien, arreta jaso dezaten eta bakean, ordaintzat hartutako justizian, berdintasunean eta giza eskubideetan oinarritutako gizartea lortzeko borrokan esperientziak partekatu ditzaten.

www.mundubat.org

ARGAZKIA: Mundubat.

NOR DIREN ETA ZER DEFENDATZEN DUTEN GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEEK

Giza eskubideen defendatzaileek funtsezko zeregina dute oinarrizko eskubide horiek babesteko eta sustatzeko orduan. Besteak beste, honako jarduera hauek garatzen dituzte:

Hezkuntza eskuratzeko aukera: Bete-bete lan egiten dute, haur eta gazte guztiak kalitateko hezkuntza eskuratzeko aukera izan dezaten. Horretarako, aukera-berdintasuna sustatzen dute, eta bereizkeriaren aurka borrokatzen dira ikasgeletan bertan.

Bereizkeriaren aurkako borroka: Buru-belarri lan egiten dute, enpleguaren, etxebizitzaren edo arreta medikoaren arloko era guztietako bereizkeria desagerrarazteko.

Poliziaren abusuaren salaketa: Poliziaren abusuak eta zakarkeria behatu eta salatzen dituzte, gizaki guztiok agintarien bidezko tratua jasotzeko dugun eskubidea defendatzeko asmoz.

Indarkeria matxista desagerrarazteko egindako lana: Bete-bete lan egiten dute, indarkeria matxista desagerrarazteko eta, horrela, gaitz sozial hori behin betiko desagertzeko.

Etxebizitzarako eskubidea: Gizaki guztiok etxebizitza duinerako daukagun eskubidea defendatzen dute.

Ingurumenaren babesa: Baliabide naturalak babesteko moduko tokiko politikak defendatzen dituzte..

Bakearen kulturaren zabalkundea: Bete-bete lan egiten dute, euren erki-degoetan bakearen kultura eratzeko eta gatazken konponbide baketsua zein adiskidantza sustatzeko.

Adierazteko askatasunaren defentsa: Adierazteko askatasunerako eskubidea defendatzen dute. Horretarako, prentsa-askatasunak jasandako edozein mehatxu salatzen dute, eta behar den moduko giroa bultzatzen dute, era guztietako iritziak errepresalien beldur izan gabe adierazteko aukera egon dadin.

...besteak beste.



Proposamen honek, Herri Babesarearen Bosgarren Foro Ibiltariak, bidea urratzen jarraitu nahi du defendatzaileen babeserako aliantzak zein sinergiak bultzatzen dituen euskal udalen babes-sarea eratzeko orduan.

Nabarmendu egin beharra dago administrazioen betebeharra dela giza eskubideen defendatzaileen babeserako neurriak hartzea eta gizartean bertan giza eskubideen defentsa egunez egunekoan integratzeko premiaren inguruko kontzientzia kritikoa sustatzen laguntzea.

Azaroan, Kolonbiako, Guatemalako, Honduraseko eta El Salvadorreko giza eskubideak defendatzen dituzten erakundeekin egongo gara. Gaur egun, inoiz baino beharrezkoagoa da giza eskubideen defendatzaileak babesteko sareak sortzea, nazioartean babestea eta modu kolektiboan defendatzea.

HERRI BABESAREA: GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEEN BABESERAKO EUSKAL UDAL SAREA

ZER DA HERRI BABESAREA?

Herri Babesarea giza eskubideen defendatzaileen babeserako euskal udal-sarea da, eta, bertan, Euskadiko zenbait udalek parte hartzen dute. Sareak udal-administrazioen, euskal erakunde sozialen eta hegoalde globaleko giza eskubideen erakunde defendatzaileen arteko ahaleginak koordinatzea dauka helburu, tokian tokitik giza eskubideen defendatzaileak babesten laguntzeko.

Horretarako, sarearen esparruan, sentsibilizaziorako, komunikaziorako, egituraketarako eta eragin politikorako ekintzak garatzen dira, defendatzaileen laguntzarako eta babeserako sareak sortzen eta euskal biztanleak giza eskubideen defentsaren garrantziaren inguruan kontzientziatzen laguntzeko. 2023ko azaroaren 13tik 17ra egingo den Herri Babesarearen Foro Ibiltariaren 5. edizioaren bidez eta Euskadiko 10 udalek parte hartuko dute bertan. Foro horren bidez, giza eskubideen erakunde defendatzaile gonbidatuen indarkeriarik gabeko erresistentziak jarriko dira agerian, eta haien babesa sustatuko da erasoen, mehatxuen, jazarpenen eta erailketen aurrean.

HERRI BABESAREAREN BOSTGARREN FORO IBILTARIA

Udalek, gobernuko beste erakunde batzuek bezala, eginkizun handia dute giza eskubideen sustapenean nahiz babesean, eta, bertan, giza eskubideen defendatzaileen defentsa ere hartu beharra dago kontuan. Giza eskubideen defendatzaileak pertsonen funtsezko eskubideen sustapenean nahiz defentsan lan egiten duten gizabanakoak edo taldeak dira, eta, sarritan, arrisku zein erronka nabariei aurre egin behar diete lan hori garatzeagatik.

Udalek funtsezko zeregina izan dezakete eta izan behar dute giza eskubideen defendatzaileak babesteko orduan.


Besteak beste, honako hauexek dira udalek defendatzaileen defentsarako abian jarri ditzaketen era guztietako ekintzak: politikak zein arautegiak sortzea; salaketarako eta babeserako mekanismoak sortzea, Herri Babesarea, esaterako; eta sentsibilizaziorako nahiz hezkuntzarako ekintzak egitea tokiko erakundeekin batera.

Giza eskubideen babesa erantzukizun partekatua denez, gobernu-maila guztiak nahiz gizarte osoa daude inplikatur.

Herri Babesareak giza eskubideen inguruko urteko udal-agenda sortu nahi du erakunde defendatzaileak babesteko. Giza eskubideen inguruko agenda horretako ekintzen artean, foro ibiltariaren urteko edizioa nabarmentzen da. Bertan, hain zuzen ere, astebetean, udal parte-hartzaileek zenbait herrialdetako giza eskubideen erakunde defendatzaileen bisitaldia jasotzen dute. Epealdi horretan, sentsibilizaziorako, egituraketarako, eraginerako eta komunikaziorako jarduerak egiten dira, euskal biztanleek defentsarako lan hori zuzen-zuzenean ezagutzeko, nazioarteko babes-sarea sendotzen laguntzeko eta haien babeserako eremuak nahiz tresnak sortzeko.

Herri Babesarearen Foro Ibiltariaren 5. edizio honetan, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako 10 udalek ahaleginak eta gaitasunak bateratu dituzte udal-ekimen honen bidez, babeserako daukaten betebeharrarekin bat egiteko asmoz. Astebetean, sentsibilizaziorako ekintzak egingo dira Herri Babesareako udalerrietako tokiko erakundeekin. Ekintza horiekin batera, komunikaziorako kanpaina ere egingo da, euskal gizartearen bertan Herri Babesarea ekimena eta erakunde defendatzaileek giza eskubideen defentsan garatzen duten lana agerian jaritzeko.

Hona hemen Herri Babesarearen Foroaren 5. edizioko udal parte-hartzaileak:



- » **ANDOAIN**
- » **AMOREBIETA-ETXANO**
- » **DURANGO**
- » **EA**
- » **ELVILLAR**
- » **ERRETERIA**
- » **GALDAKAO**
- » **HERNANI**
- » **IRUN**
- » **LAUDIO**

**“2022an, gutxienez 26
herrialdeetako 401 defendatzaile
hil zituzten giza eskubideak
defendatzeagatik.”**

Front Line Defenders
erakundearen txostena





“Indarkeriaren ondorioz, defendatzaileak erail dituzte, baina, horrez gain, defendatzaileak eta haien familiak ere estigmatizatu, auziperatu eta mehatxatu dituzte etengabe.”

Front Line Defenders erakundearen 2022ko Txostena

GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEEN BABESARI BURUZKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Giza eskubideak (GGEE) gizaki guztien berezko eskubideak dira, haien arraza, sexua, nazionalitatea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, gustu sexualak eta afektiboak edozein direla ere. Giza eskubideak banaezinak dira, elkarren arteko menpetasun estua dute eta honako hauexek dira, besteak beste: bizitzeko eta askatasuna edukitzeko eskubidea; esklabotzapean eta torturapean ez egoteko eskubidea; iritzia eta adierazpen askatasuna edukitzeko eskubidea; lurraldeez ingurumen osasungarrian gozatzeko eskubidea; hezkuntzarako, lanerako eta indarkeriarik gabeko bizitzarako eskubidea.

Estatuek GGEE guztiak babesteko, sustatzeko eta gauzatzeko betebeharra duten arren, planetako eskualde askotan modu larrian urratzen dituztela ikusten dugu egunero. Aldi berean, ikusi ere egiten dugu giza eskubideen defendatzaileak etengabe mehatxatu, eraso, jazarri eta, askotan, hil egiten dituztela.

Edonola ere, babesteko betebeharra ez da estatuetako gobernuen arduz bakarrik. Udal-erakundeek GGEEak sustatzeko eta babesteko betebeharra dute Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen arloan legerian bertan adierazten den bezala. Horrez gain, gizarte zibiletik hurbil daudenez eta harekin harreman estua dutenez (tokian tokikoak eta globalak bat egitean aukerak ere badituztenez), giza eskubideen defendatzaileen babesean eragin ona duten ekintzak egin beharko lituzkete.

Aukera horiek aztertu ondoren, udalok giza eskubideek maila globalean jasaten duten urraketaren larritasunari buruz hausnartu dugu, eta badakigu nolako ahalmenak dituen sare batek, udal-arloan herritarren jarduketa-eremuaren berreskurapenerako ahaleginak bateratzeko orduan. Gainera, udalen ekintza ere bada garrantzitsua defendatzaileen babesean, haien zaugarritasuna gero eta handiagoa dela kontuan hartuta. Hori dela eta, gero eta eremu seguru gehiago, zainketa gehiago, nazioarteko agerikotasun handiagoa eta gure udalerriko biztanleen sentsibilizazio handiagoa egon behar dira.

Aurrean adierazitako guztiagatik, udal parte-hartzaileok, adierazpen instituzional honen bidez, HERRI BABESAREA ekimenarekin bat egiten dugu: Giza Eskubideen Defendatzaileen Babeserako Euskal Udal Sarea. Izan ere, udal-administrazioen, euskal gizarte-erakundeen eta hegoalde globaleko giza eskubideen defendatzaileen erakundeen arteko ahaleginak koordinatzea dauka helburu, sentsibilizaziorako, komunikaziorako eta eragin politikorako ekintza bateratuak egiteko eta, horrela, tokian tokitik, giza eskubideen defendatzaileen babesa sustatzeko.

ERAKUNDE DEFENDATZAILE PARTE-HARTZAILEEN PROFILAK

Stranler López Rivas



San Migeleko Tokiko Kontseilu Erkidea Chocoko Departamentuko Erdiko San Juaneko udalerriko korrejimenduan dago.

San Migeleko Tokiko Kontseilu Erkideak San Juaneko Kontseilu Nagusian (ACADESAN) parte hartzen du. Litoraleko, San Juaneko, Sipiko, Isminako, Erdiko San Juaneko eta Novitako (beheko aldea) udalerrietako 72 erkidego afrooinordeko Kontseilu Nagusi horretako kideak dira.

2014. urteaz geroztik, Nekazaritzako Koordinakunde Nazionalan (CNA) parte hartzen du. Prozesu hori 1997an sortu zen, nekazaritzako ekimenen proposamenerako koordinazioan aurrera egiteko asmoz; esate baterako, nekazariak subjektu sozial eta politikoak direla aitortzea, nekazaritzako elikagaien burujabetasuna sustatzea eta lurraldeetan bertan geratu ahal izatea, besteak beste.

2017. urtearen amaieratik, Erdiko eta Beheko San Juaneko zenbait lider sozialek biztanle zibilen bizi-eskubidea errespetatzeko eskatu zutenetik, eskualdean sortu zen giroaren ondorioz, erkidegoak nolabaiteko bakean bizi ahal izan ziren, Itun Eragilea zegoelako ELHko gerrilaren eta Kolonbiako Autodefentsa Gaitandarrak (AGC) talde paramilitarraren artean, lurraldea eta legezko nahiz legez kanpoko ekonomiak kontrolatzeko.

2021. urtearen erdialdean ituna hautsi ondoren, ordea, krisi humanitario larria sortu da. Egoera horren ondorioz, defendatzailea Kolonbiako Pazifikoko Giza Eskubideen Sarean (REDDHHPAC) sartu da, honako hauxe agerian jarri eta salatu ahal izateko: nahitaezko lekualdaketak, erkidegoek jasan dituzten konfinamenduak eta giza eskubideak defendatzen dituzten lider sozialek jasan dituzten mehatxuak zein jazarpenak.

Chocoko Departamentuan, indarkeriak gora egin du erabat, eta talde paramilitarrak ere birkokatu egin dira. Izan ere, euren artean ari dira lehian, San Juan ibaia kontrolatzeko eta, horrela, narkotrafikoko droga bertatik ateratzeko eta baliabide naturalen ustiapenerako jarduerak garatzeko. Hori dela eta, erkidegoak ezinbestean bizi behar dira konfinatuta, ez dute elikagairik eta haien funtsezko eskubideak urratzen dira.



Lorena Peña



Lorena Peña Askapen Nazionalerako Farabundo Martín Fronteko (FMLN) komandantea izan zen, eta 1992an norgehiagoka armatuei amaiera eman zieten bake-hitzarmenak negoziatzeko taldeko kidea izan zen. Era berean, 2009tik 2018ra, diputatua izan zen; eta, 2015etik 2016ra, Batzar Legegileko presidentea. 1992an, Las Méridas erakunde feminista sortu zuen, eta, gaur egun, Emakumeen Nazioarteko Federazio Demokratikoko presidentea da. Hain zuzen ere, federazio hori da bere herrialdean jasaten ari den ehiza salatzen duena. Zer egin du, ordea? Honako haxe helburu duten legeak bultzatzea: abortua despenalizatzea, askatasun sexualaren aurkako delituak eta emakumeen zein neskatilen kontrako indarkeria zigortzea eta haien berdintasuna nahiz jabekuntza sustatzea, besteak beste. Izan ere, agerian jarri du 60.000 lagun bereizgabe atxilotu dituztela banden aurkako borroka-
ren eta aurkarien jazarpenaren aitzakiarean. Haietako batzuk erbeste-
teratu egin dira. Zer egiten diote berari? Legez kontra aberasteagatik bere izena zikintzeko eta kriminalizatzeko asmoz inolako oinarririk gabe abian jarri duten kanpaina. Edonola ere, horren aurkako frogak aurkezten dituen arren, arriskuan dago, hiru botereak bere esku dituen Bukelek berak Gorte Gorenean jarritako magistratu bereziek epaitu behar dutelako. Lorena Peña bezalako emakumeak arrisku-
tsuak dira, ez direlako zapalkuntzaren aurrean isiltzen.



Tomy Morales



Honduraseko Bizitza Duinaren aldeko Erresistentziarako Emakume Mesoamerikarrak eremu politiko, anitz, autonomo, egituratu eta prestatzailea da, eta erresistentzian dago politika neoliberal globalizatzailearen zein sistema patriarkalaren aurrean. Horretarako, behar besteko estrategiak eta proposamenak zehazten ditu, emakumeei giza eskubideak erabiltzen uzten dieten prozesu politiko, ekonomiko, sozial eta kultural barneratzaileak, bidezkoak eta jasangarriak indartzeko eta bermatzeko.

Zenbait ekintza-arlotako emakumeen eta feministen mugimenduetako 69 erakunde ditu kide, eta erresistentziarako mugimendu sozial mesoamerikararen esparruan sortu zen, eskualdeko gobernuek Estatu Batuekin sinatutako Merkataritza Askerako Itunak (MAI) negoziatu zirenean. Itun horiek, hain zuzen ere, ondorio suntsitzaileak izan dituzte biztanle guztientzat eta, batez ere, emakumeentzat.

Eratu zenetik, hiru ardatzetan garatzen ditu bere ekintzak:

- Eskualdean mobilizaziorako/eraginerako aldi berean egindako ekintzak.
- Emakumeek maila mesoamerikarrean egindako topaketak.
- Eskualdeko Emakume Liderrentzako Prestakuntza Politiko eta Ekonomikorako Eskola.

MER-H erakundearen proposamena

Emakumeentzako, izaki bizidun guztientzako eta Ama Lurrarentzako gizarte nahiz mundu hobetarako proposamenen bila Bizitza Duinaren aldeko Erresistentziarako Emakume Mesoamerikar moduan egin dugun ibilbidean, jatorrizko herrien proposamen antisistemiakoak aurkitu ditugu.



Emakumeen Sektorea



Emakumeen Sektorea Aliantza Politikoa (APSM) erakunde feminista da, 29 urteko historia dauka Guatemalan eta emakumeenak nahiz mistoak diren 32 giza talde dira bertako kideak. Zenbait prozesu bultzatzen ditu, prestakuntza politiko eta ekonomiko feministarako eskolak, esaterako. Bertan, hain zuzen ere, herri-hezkuntzaren, espiritualtasunaren eta feminismoen arteko berezko metodologiak erazten dira, eta tokian tokiko erakundeak dira eskola horiek abian jartzen dituztenak. Horrez gain, beste erakunde eta instituzio batzuekin egiten ditu ekintzak; esate baterako, Emakumeen Presidentetzako Idazkaritza (SEPREM). Bestetik, politika publikoak eta lege-proposamenak egin eta sustatzen ditu; esate baterako, familiako bertako indarkeriari buruzko legea, familia-plangintzaren lorpen unibertsalari buruzko legea eta femizidioaren nahiz beste era batzuetako indarkeriaren aurkako legea, besteak beste. Era berean, emakumeen jabe-kuntzarako prozesuak ere ezartzen ditu, garapenerako kontseiluen sisteman parte hartu dezaten eta, horrela, erkidego, udal, departamentu zein nazio mailako erabakietan esku hartu dezaten.

Horrez gain, zenbait ekintza ere jartzen ditu abian; esate baterako, emakumeen erakundeen proposamenak agerian jartzeko eta salaketak egiteko kanpainak.

Honako hauexek dira bere hiru lan-ardatzak: arlo politikoan sendotzea, emakumeen garapen ekonomikoa sustatzea eta emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea. Lana bera mugimendu politikorantz indartzen da, eta aliantzak irekitzen ditu beste mugimendu batzuekin. Hortik aurrera, pentsamenduetan sakondu du honelako kategorien bidez: bizitzako sarea, subjektu politikoak diren emakumeak, nortasun politikoa, bizimodu ona eta emakumeen gorputza, besteak beste. 2012. urteaz geroztik, aliantza antolatzeke modua aldatu zen, lurralde-kontseiluak ezarri ziren eta borroka-arloak ere gehitu ziren. Azken urteotan, emakume xinken zein garifunen er-

muetan eta APSMn bertan, partaidetza politikorako modu berriak eratzen ari dira, hau da, erabakiak hartzeko berezko moduak (haien mundu-ikuskeran oinarritutakoak) eta modu kolektiboak.



EGITARRAUA

Azaroaren 14a, asteartea

UDALERRIA_ ELVILLAR

Defendatzailea **Tomy Morales** Erresistentziako Emakumeak (Honduras)

Defendatzailea **Stranler López Rivas** Nekazaritzako Koordinakunde Nazionala (Kolonbia)

UDALERRIA_ EA

Defendatzailea **María Velasquez** Emakumeen Sektorea (Guatemala)

Defendatzailea **Lorena Peña** FMLN (El Salvador)

Azaroaren 15a, asteazkena

UDALERRIA_ LAUDIO

Defendatzailea **María Velasquez** Emakumeen Sektorea (Guatemala)

UDALERRIA_ AMOREBIETA-ETXANO

Defendatzailea **Lorena Peña** FMLN (El Salvador)

Azaroaren 16a, osteguna

UDALERRIA_ HERNANI

Defendatzailea **Tomy Morales** Erresistentziako Emakumeak (Honduras)

Defendatzailea **Stranler López Rivas** Nekazaritzako Koordinakunde Nazionala (Kolonbia)

Defendatzailea **María Velasquez** Emakumeen Sektorea (Guatemala)

Defendatzailea **Lorena Peña** FMLN (El Salvador)

UDALERRIA_ GALDAKAO

Defendatzailea **Tomy Morales** Erresistentziako Emakumeak (Honduras)

Defendatzailea **Stranler López Rivas** Nekazaritzako Koordinakunde Nazionala (Kolonbia)

EGITARAUA

Bilera instituzionalak

Azaroaren 14a, asteartea

Harrera Eako Udalean

ERAKUNDE DEFENDATZAILEAK

FMLN (El Salvador)

Emakumeen Sektorea (Guatemala)

Harrera Bilarreko Udalean

ERAKUNDE DEFENDATZAILEAK

Erresistentziako Emakumeak (Honduras)

Nekazaritzako Koordinakunde Nazionala (Kolonbia)

Azaroaren 15a, asteazkena

Harrera Laudioko Udalean

ERAKUNDE DEFENDATZAILEA

Emakumeen Sektorea (Guatemala)

Harrera Amorebieta-Etxanoko Udalean

ERAKUNDE DEFENDATZAILEA

FMLN (El Salvador)

Harrera Errenteriako Udalean

ERAKUNDE DEFENDATZAILEAK

Erresistentziako Emakumeak (Honduras)

Nekazaritzako Koordinakunde Nazionala (Kolonbia)

Azaroaren 16a, osteguna

Harrera Hernaniko Udalean

ERAKUNDE DEFENDATZAILEAK

- **FMLN (El Salvador)**
- **Emakumeen Sektorea (Guatemala)**
- **Erresistentziako Emakumeak (Honduras)**
- **Nekazaritzako Koordinakunde Nazionala (Kolonbia)**

Harrera Durangoko Udalean

ERAKUNDE DEFENDATZAILEAK

- **FMLN (El Salvador)**
- **Emakumeen Sektorea (Guatemala)**

Harrera Galdakaoko Udalean

ERAKUNDE DEFENDATZAILEAK

- **Erresistentziako Emakumeak (Honduras)**
- **Nekazaritzako Koordinakunde Nazionala (Kolonbia)**

Azaroaren 17a, ostirala

Harrera Andoaingo Udalean

ERAKUNDE DEFENDATZAILEAK

- **Emakumeen Sektorea (Guatemala)**
- **Erresistentziako Emakumeak (Honduras)**
- **Nekazaritzako Koordinakunde Nazionala (Kolonbia)**



Herri Babesarea

Giza eskubideen defendatzaileen
babeserako euskal udal sarea
Red vasca municipal de protección
a defensores/as de derechos humanos